

EGINTZA PROZESALAK

I. EGINTZA PROZESALAK: KONTZEPTUA ETA EGINTZA ETA EGITATE PROZESALEN ARTEKO BEREIZKETA

- *Egitate juridikoa (hecho jurídico):* Errealitate juridikoa sortzen/aldatzen/azkentzen duen gertaera naturala. Adb. seme-alaben jaiotza ezkontideentzat.
- *Egitate juridiko-prozesala (hecho jurídico procesal):* Posiblea da gertaera natural horiek prozesuan eragina izatea. Adib. Alderdi baten heriotzak ondorengotza prozesala dakar.
- *Egintza juridikoa (acto jurídico):* Borondateak parte hartzen du; subjektu batek jarduera bat burutzen du ondorio juridiko zehatza lortzeko. Adb. testamentua egin.
- *Egintza juridiko-prozesala:* Egintza juridikoak ere zuzeneko eragina izan dezake prozesuan. Adib.: Demanda aurkeztea, froga proposatzea...
- *Negozio juridikoa:* Subjektu desberdinen borondateak parte hartzen du. Prozesuan subjektuen borondatea ez da nahikoa ondorioak sortzeko. Ez dira prozesuaren barruan existitzen. Gauza desberdina da *transakzio judiziala*, horrek ondorioak eragiten ditu epaileak autoa eman ondoren.

EGINTZA PROZESALA: Epailearen edo/eta alderdiaren egintza juridikoa, prozesua gauzatzen laguntzen duena eta ondorio nagusia berehala eta zuzenean prozesuan duena.

- Prozedura/Prozesua = lotura duten egintzen segida (kanpoko itxura-educia/mamia) → Egintza prozesala betiere beste batzuekin nahasirik agertzen da; eta pertsona desberdinek burutzen dituzte. Izan ere, nahasketa hori da lortu nahi den ondorio juridikoa sortzea bermatzen edo ahalbidetzen duena.
Adb. Demandak jarduera prozesala pizten du, baina lortu nahi den ondorioa sortzeko beharrezkoa da beste egintza prozesal batzuekin batera burutzea (onarpenna, aurka-egitea, frogaren proposamen eta burutzea...).
- Legeek prozedura/prozesu desberdinak arautzen dituzte eta egintza bakoitzak betekizun desberdinak ditu; dena den, eraentza komuna dago guztientzako: BJLO 179 – 185 eta 229 – 278 art.

II. EGINTZA PROZESALEN BETEKIZUNAK

Aurrebaldintza prozesala vs betekizun prozesala
(presupuesto procesal vs requisito procesal)

1. ARRAZOIA

Egintza prozesalek helburu juridikoki garrantzitsua, zilegia eta ordenamenduak babestua izan behar dute (BJLO 11.2 art.). Arrazoa babes juridikoa lortzeko interesarekin identifikatzen da.

Adib. errekurtsoa aurkezteko grabamen (kalte) bat egon behar da.

2. OBJEKTUA

Egintzaren ondorioak jasaten dituen egoera da. Existitzen diren objektu haina egintza prozesal daude.

Ezaugarriak:

- Fisikoki posiblea izan behar da.
- Ondorioa sortzeko egokia (adib. ezin da zitazio bat egin alde aurreko denbora nahikorik gabe).
- Zehatza (jasango duten objektuak edo pertsonak zehaztu beharko dira).

3. BORONDATEA

Borondatea betiere agertzen da egintzan. Garrantzitsuena adierazitako borondatea da (kanpoko borondatea).

Borondatean akatsik balego → Egintza aurkatzeko aukera (BJLO 238.2., eta PZL 225.2. art.) → Indarkeri edo beldurraren eraginpean burututako egintzak baliogabeak izango dira.

4. FORMA

Formen legezkotasuna aldarrikatzen da.

Forma. Egintzak adierazteko modua: Ahozko forma/idatzizkoa; publikotasuna/sekretua. Legeak egintza bakoitzaren forma ezartzen du, baina batzuetan ez du guztia zehazten.

- **Ahozko egintzak.** Ahozko egintzak grabatu egingo dira. Betekizunak:
 - **A)** Legeak zehazturiko pertsonak burutu behar dituzte eta epailearen edo justizi administrazioko letratuaren aurrean burutuko dira.
 - **B)** Publikotasun-printzipioari dagokionez (EK 24.1 eta 120.1 art.):

- arau orokorra (BJLO 232 art.): Froga-egintzak, bistak eta ebazpen bat eman baino lehen alderdiei entzutea helburu duten agerpenak entzunaldi publikoan burutzen dira.
 - Salbuespenak: Ordena publikoa; adingabeen interesen babesa; alderdien bizitza pribaturako errespetua; bestelako eskubide eta askatasunak babesteko; justiziaren interesak errespetatzeko. Kasu hauetan sesioak “*atea itxita*” egiten dira, auto motibatuaren bitartez erabaki ondoren.
- **Idatzizko egintzak:**
 - **A)** Egileek sinatu behar dituzte.
 - **B)** Alderdien egintzak izanez gero, kontrako posizioan dauden pertsona adina kopia aurkeztu beharko dira.
 - **C)** Egintzen sekretua dakar. Dena dela, bidezko interesa duen edozein pertsonak egintzen informazioa eska dezake (PZL 140 art.). Informazio hori Justizia Administrazioako Letratuak ematen du (BJLO 234, 453.2 eta 454.4 art.).

5. HIZKUNTZA

- **Arau orokorra:** “Epaileek, magistratuek, Fiskalek, Justizia Administrazioako Letratuek eta gainerako funtzionarioek gaztelera erabiliko dute, estatuaren hizkuntza ofiziala”. Arau hori alderdiei eta hirugarrenei aplikagarri zaie. Egintzak estatuaren hizkuntza ofizialean egingo dira, **gazteleraz (beharra)** (BJLO 231.1 art.).
- **Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialak:** Autonomia Erkidegoaren eremuan haren hizkuntza ofiziala erabil dezakete funtzionario judizialek baldin eta alderdien defentsa gabezia sortzen ez badu. Alderdiek, abokatuek, lekukoek eta perituek ere hizkuntza hori erabil dezakete; ezagutzen ez duten alderdiek dokumentuen itzulpena edo itzultzaile bat eska dezakete (BJLO 231.2 eta 3; PZL 142 eta 143 art.). Autonomia Erkidegotik kanpo ondorioak sortu behar dituen dokumentuak gaztelerara itzuli beharko dira (BJLO 231.4 art.).
- **Atzerriko hizkuntzak:** Gaztelera edo Autonomia Erkidegoko hizkuntza ezagutu ezean, ahozko deklarazioetan itzultzaile bat izendatuko da (BJLO 231.5; PZL 143; PKL 398 eta hurr. art.). Idatzizko dokumentuak itzuli behar dira (PZL 144 art.).

6. DENBORA

Egintzak lanegun eta lan-orduetan burutzen dira:

- **Lanegunak:** Urteko egun guztiak dira; larunbatak, igandeak eta gainontzeko jaiegunak izan ezik (estatukoak, Autonomia Erkidegokoak eta herri bakoitzekoak) (BJLO 182.1 eta 183 art.). Gainera, abuztua oporraldia da.
Salbuespenak (BJLO 184 art.):
 - A) Zigor ikerketa eginbideak: Egun eta ordu guztiak dira lanegunak eta lan-orduak.

- B) Premiazko egintzetarako beste egun eta ordu batzuk bihur daitezke lanegun eta lan-ordu.
- **Lan-orduak:** 8:00–20:00 (BJLO 182.2 art.). Dena dela 22:00 arte luza daitezke, komunikazio eta exekuzio-egintzetarako (PZL 130 art.).

Egintzak momentu konkretuetan burutzen dira: *terminoak eta epeak* (término y plazo).

- **Terminoak:** Egintza burutu behar deneko memento espezifikoa (egun eta ordu zehatza).
- **Epea:** Denbora tartea; horren barruan edozein momentutan egin daiteke egintza. Desberdintzen da:
 - o A) Epe propioak: Egintza epe barruan burutzen ez bada, preklusioa gertatzen da (PZL 136 art.).
 - o B) Epe ez-propioak: Jurisdikzio-organoak eta Letratuak epez kanpo buru ditzakete egintzak eta balioa mantenduko dute. Horietan ez da preklusiorik gertatzen.

Nola zenbatzen dira? (PZL 133 art.)

- **Dies a quo:** Hasierako eguna = Notifikazioa jasotzen den hurrengo eguna. Horretatik hasten da epea zenbatzen.
- **Dies ad quem:** Amaiera-eguna. Epea amaitu eta hurrengo lanegunaren 15.00ak.
- **Zenbatzeko modua:**
 - o A) Epea hilabetetan edo urtetan egiten bada, datatik datara zenbatzen dira
 - o B) Epea egunetan eginez gero, lanegunak ez diren egunak ez dira kontuan hartuko.

7. TOKIA

- **Arau orokorra:** Egintzak jurisdikzio-organoaren egoitzan egiten dira, bulego judizialean (BJLO 268.1 art.).
- **Salbuespenak:**
 - o **A)** Egintza egoitzatik kanpo, baina organoaren eskumen-eremu barruan egin behar bada → organoa egokia den lekuan eratuko da (adib. ezagutze judiziala).
 - o **B)** Egintza bere eskumen-lurraldetik kanpo egin behar bada → Laguntza judiziala eskatuko du (BJLO 274. art.).

8. SUBJEKTUEN GAITASUNA

Egintzak ondorioak eragiteko subjektuek bete behar dituzten baldintzak:

- **Jurisdikzio-organoak:** Ahalmen jurisdikzionala eta eskumena izan behar du.
- **Alderdiak:** Alderdia izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala izan behar dute (PZL 6 art.); horretaz gain, legitimazioa ere beharrezkoa da.

Postulazioa (abokatuaren laguntza eta prokuradorearen ordezkartza) ere eskatzen zaie, kasu batzuetan izan ezik (BJLO 23 eta 31 art.).

- **Hirugarrenek** (lekukoak, perituak, Justizia Administrazioako Letratuak...): Kasu zehatzeko baldintzak kontuan hartu beharko dira.

III. EGINTZA PROZESALEN BALIORIK ETA ERAGINKORTASUNIK EZA (NULIDAD E INEFICACIA)

Eraginik eza: Betekizunen bat betetzen ez duen egintzak ez du eraginik izango. Eragin ezaren maila desberdinak daude.

1. BALIOGABETASUNA/DEUSEZTASUNA (BJLO 238-243 art.) (ACTOS NULOS)

- Egintzak legeak ezarritako oinarritzko betekizunen bat du faltan.
- *Arrazoiak:*
 - o jurisdikzio edo eskumenik gabeko organoaren aurrean burututako egintzak
 - o justizia administrazioako letraturik gabe egindako ikustaldiak
 - o indarkeria edo beldurraren menpe egindako egintzak
 - o prozeduraren oinarriko arauak bete gabe egintza egitea; defentsa gabezia sortzen badu edota oinarritzko berme edo eskubideren bat urratzen badu
 - o egintzak ezinbesteko dituen elementuak faltan baditu
 - o legeak ezartzen dituen gainontzeko arrazoiak.
- *Salaketa:* Ofizioz edo alderdiak eskatuta, epaia eman aurretik edo ondoren:
 - o A) *Ofizioz:*
 - Indar edo beldurraren kasuan → Jardun den guztiaren baliogabetasuna ofizioz deklaratzeko da, egoera prozesala edozein izanda (BJLO 239 art.).
 - Gainerako kasuetan → alderdiei entzun ondoren, ofizioz erabaki daiteke baliogabetasuna behin betiko epaia eman baino lehen edozein momentutan, baldin eta konpongarria ez bada (BJLO 240.2 art.).
 - o B) *Alderdiak eskatuta:*
 - Ebazpena eman aurretik, konpongarria ez bada (BJLO 240.2 art.);
 - Epaia eman ondoren, legeak aurreikusitako errekurtsioen bitartez (BJLO 240.1 art.);
 - Epaia irmo bihurtuta *egintzen deuseztasunaren intzidentetaren bidez* (BJLO 241 art.).
- Alderdien egintzen akatsak konpongarriak ez direnean baino ezin izango dira baliogabe deklaratu (BJLO 243 eta PZL 231 art.). Jurisdikzio-organoei

bakarrik ezezta ditzakete uziak arrazoi formalengatik akatsa konponezina denean edo konpongarria izanik alderdiek konpontzen ez dutenean (BJLO 11.3 art.).

2. DEUSEZTAGARRITASUNA (ANULABILIDAD)

Betetzen ez den baldintza ez da oinarritzkoa. Falta den betekizuna xedagarria da alderdientzat.

- Egintzak konpongarriak dira alderdiaren jarduera positibo edo onarpenaren bitartez → Alderdiak dira salatu behar dutenak (ez dago ofizioz deklaraterik).
- Salatzeko momentua: Alegatzea ahalbidetzen duen edozein momentu prozesalean edo ebazpenaren aurkako legezko errekurtsoen bitartez.
- Ez dago deuseztagarritasun arrazoiak zehazten dituen arau espezifikorik, kasu zehatzak baino ez dira.

Adibidez, denboraren betekizuna ez betetzea (BJLO 242 art.), oinarritzko betekizun eza (BJLO 240 art.)...

3. IRREGULARTASUNA

- Betetzen ez den baldintza garrantzi gutxikoa da, beraz, egintza prozesalak ondorioak sortzen ditu. Kasu horietan legeak zigorra aurreikusi dezake haustea burutzeagatik.
- Adib. epe ez-propioak: epaileak epaia emateko epea ez betetzea → diziiplina zigorra.

EGINTZA MOTAK: ALDERDIEN ETA ORGANO JURISDIKZIONALEN EGINTZAK

IV. ALDERDIEN EGINTZAK

Batetik, ebazpen judizial bat lortzeko egintzak daude; bestetik, ezaguera nahiz borondate elementuak jakinarazteko helburuz egindakoak. Ondorioak sortzeko baldintzak bete behar dituzte eta oinarrituta egon behar dira.

1. EBAZPEN JUDIZIALA LORTZERA BIDERATUTAKO EGINTZAK

- ***Eskaera-egintzak:*** Helburua eduki zehatza duen ebazpen judiziala eskatzea da. Borondatezko deklarazioak dira (adib. demanda).
- ***Alegazio-egintzak:*** Egitateei edo Zuzenbideari buruzko adierazpenak dira. Eskaeren arrazoitzeko erabiltzen dira.
- ***Froga-egintzak:*** Frogak proposatzeko egintzak, eta ondoren frogak burutzeko egintzak. Horien helburua egitateei buruzko epailearen konbikzio osoa lortzea da.
- ***Konklusio-egintzak:*** Konklusio-fasean alderdiek frogei buruz egiten dituzten balorazioak dira.

2. EGOERA JURIDIKOAK SORTZEKO EGINTZAK

- Prozesuan ondorio zehatzak sortzera edo ebazpen judizialaren edukia baldintzatzera zuzentzen dira.
- Adib. amore ematea, transakzio judiziala, notifikazio-efektuetarako helbidea zehaztea, perituen izendapenean alderdien arteko adostasuna...

V. JURISDIKZIO ORGANOEN EBAZPENAK

Jurisdikzio organoak, prozesuan zehar, mota ezberdinetako ebazpenak emango ditu:

- prozesuan zehar hartutako erabakiak (interlocutorias)
- mamiaren gainekoak (de fondo)
 - o behin betikoak
 - o irmoak

Ebazpen judizial motak (BJLO-ren 245 art.): *Probidentziak, autoak eta epaiak.*

1. PROBIDENTZIAK

- Prozesuaren bideratze edo ordenazio materiala dute helburu (BJLO 245 art.). Ebazpenik sinpleenak dira. Konplexutasun minimoa duten erabakiak emateko.
- *Zein kasutan erabaki behar du organoak probidentziaren bidez?* Epaile batek erabaki behar dituen izaera prozesaleko kontuak direnean, legeak horrela esateagatik, euretatik kargak eratortzeagatik edo alderdien eskubide prozesalak ukitzeagatik (PZL 206.2.1. art.).
- *Forma:* Beraietan adieraziko dira lekua eta data; epaitegi edo auzitegia (bere kideak zeintzuk diren adieraziz); mandatuaren edukia; epaile edo ponentearen sinadura; bere kontra aurkez daitekeen errekurtsua. Ez dira motibatu behar, legeak horrela eskatzen duenean edo organoak egokitzat hartzen duenean izan ezik.

2. AUTOAK

- Kontu gatazkatsuak erabakitzen dituzten ebazpen judizialak (BJLO 248.2 art.). Ez dute prozesuaren uzia ebazten. Konplexutasun eta garrantzia handiagoa dute.
- *Zein kasutan erabaki behar du organoak autoz?*
 - Dekretu edo probidentzien aurkako errekurtsuak erabakitzen direnean;
 - demandaren onarpena/ukapena erabakitzean; errekonbentzioa edo akzioen metaketan; aurrebaldintza prozesalak; frogaren onarpena/ukapena...
 - auzialdi edo errekurtsu baten jardueri bukaera emateko bere izapidetze arrunta amaitu baino lehen (PZL 206.2.2. art.).
- *Forma:* Motibatu behar dira.

3. EPAIAK

- Prozesuaren objektua edo uzi nagusia ebazten dute, auziaren mamiari buruz ebazten dute. Salbuespena: Posiblea da auziaren mamiari buruz erabakitzen ez duten epaiak ematea aurrebaldintza prozesal ezagatik = *auzaldian absolutzio-epaiak (sentencias absolutorias en instancia)/izaera prozesal hutsa duten epaiak (sentencias meramente procesales)* .
- *Epaia formak izan behar duten ebazpenak:*
 - Prozesua amaiarazten duten ebazpenak
 - Ez-ohiko errekurtsuak nahiz epai irmoen berrikuspena erabakitzen dituzten ebazpenak.
- *Forma.* Betiere motibatu behar dira (BJLO 248 art.):
 - A) *Goiburua (encabezamiento):* data, lekua, organoa, alderdien datuak eta beren legitimazioa, abokatuak, prokuradoreak eta objektua adierazten dira
 - B) *Egitatezko aurrekariak (antecedentes de hecho):* Banandutako eta zenbatutako paragrafoetan
 - C) *Zuzenbidezko oinarriak (fundamentos de derecho)*

- D) *Epaiza (fallo)*: adierazitako uziarekiko eta erresistentziarekiko kongruentea izan beharko da (prozesuaren objektuaz eta kostuez erabakitzen du).
- *Erabakia*: Organo kolegiatuetan aldez aurreko deliberazioa eta bozkatzea (gehiengo absolutua) beharrezkoak dira; horiek ateak itxita egingo dira → Magistratu Ponenteak epaia idazten du → Magistratu guztiek sinatzen dute eta boto partikularrak adierazten dira → Irakurketa publikoa.
- *Aldaezintasuna*: Epaia emanda ezin da aldatu; dena dela akatsak konpon daitezke (akats aritmetikoak...). Gainera alderdiek ebazpena argitzea eskatzeko aukera dute (PZL 214 y 215 art.).

VI. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LETRATUARENAREN EBAZPENAK

1. ORDENAZIO-EGINBIDEAK (*DILIGENCIAS DE ORDENACIÓN*)

- Jasotzeko, komunikazio eta betearazpen eginbideak (*diligencias de constancia, de comunicación, de ejecución*): eragin prozesala duten egintzak islatzen direnean.
- Ordenazio eginbideak (*diligencias de ordenación*): prozesuari legeak agindutako bideratzea emateko ebazpenak dira; prozesuaren autoak ordenatzen dituzte eta bide ematen diete. Epaille edo ponentearen aurrean errekurri daitezke, legeak zehaztutako kasuetan eta eran (BJLO 456 art.).
 - *Forma*: Idazkariaren izena, agintzen dena, data eta sinadura adierazten dira. Ez du motibaziorik behar (PZL 223.2 art.).

2. DEKRETUAK

- Dekretuak motibatu egin behar dira. Dekretu bidez onartuko dira demandak. Horrez gain, Letratuak dekretuak ematen ditu prozedura amaitzeko edo bere erabakia motibatu behar denean.
- *Kasuak*: Legeak idazkariari exekuziorako eskumena ematen dionean, borondatezko jurisdikzio kasuetan, adostasunetan, legeak aurreikusitako beste kasu batzuetan.
- *Forma*: Banandutako eta zenbakitutako paragrafoetan egitatezko aurrekaria eta zuzenbidezko oinarriak adierazi behar dituzte.

VII. KOMUNIKAZIO-EGINTZAK

Komunikazio-egintzak: Egintza hauen bitartez prozesuan parte hartu behar duten alderdiei komunikazioak egiten zaizkie. Intzidentziak edo jarduerak jakinarazten zaizkie jarduera zehatz bat sortzeko, honen aukera bermatzeko eta publikotasun-printzipioa babesteko. Egintza hauek Laguntza Judizialeko funtzionarioen eskumena dira, Justizia Administrazioako Letratuaren zuzendaritzapean (BJLO 478.a) art.).

Arauketa: BJLO 270-272 art.; PZL 149 eta hurr. art.; PKL 166 eta hurr. art.

1. ALDERDI ETA BESTE SUBJEKTU BATZUEKIN KOMUNIKAZIOA

- *Notifikazioa (notificación)*: Ebazpen judizial edo gainontzeko alderdien jardura bat komunikatzen dute, alderdia jakinaren gainean jartzeko bakarrik (BJLO 270 eta PZL 149.1 art.).
- *Zitazioa (citación)*: Egintza prozesal bat burutzeko eguna, ordua eta lekua zehazten dute (adib. Zigor arloan ahozko epaiketa burutzeko). Zedularen bidez egiten zaio prokuradoreari edo abokatuari (PZL 152 eta PKL 175 art.).
- *Epaketa (emplazamiento)*: Ebazpen bat komunikatzen dute eta aldi berean epe bat ematen dute notifikatutako subjektuak jardura bat egiteko. Zedularen bidez egiten da.
- *Errekerimendua (requerimiento)*: Agindu bat ematen dute edo jardura zehatz bat egitera behartzen dute; beste batzuetan jardura bat egiteaz abstenitzera behartzen dute (PZL 149.4. eta 152 art.). Notifikazioak bezala egiten dira, baina kasu honetan errekerituak mandatuari erantzun behar dio modu laburrean (PZL 152.3 art.).
- *Mandamendua (mandamiento)*: Jabetza-Erregistratzaileei, Merkataritza-Erregistratzaileei, Notarioei, Polizia Judizialari... egindako eskaera zertifikazio edo testigantza bat eman dezaten (PZL 167 eta PKL 186 art.).
- *Ofizioa (oficio)*: zuzenean Jurisdikzio-organoen aginduen menpe ez dauden Autoritateen edo funtzionarioen kooperazioa eskatzeko (PZL 167 eta PKL 195 art.)

Komunikazio horiek egiteko forma:

Komunikazio eginbideak Letratuek eta Laguntza Judizialeko Kidegoko langileek egingo dituzte. Oro har, bide elektronikoa eta informatikoen bidez burutuko dira.

- *Bulego ofizialetan* interesatuari pertsonalki (pertsonatu ez bada edo legeak honela eskatzen badu) edo bere prokuradoreari bide telematikoen bidez (PZL 152 eta BJLO 272 art.).
- *Interesatuaren helbidean*: Posta zertifikatuaren bidez (forma arrunta) edo zedula edo ebazpenaren kopia eman. Azken kasu honetan funtzionarioa pertsonalki aurkezten da helbidean (PZL 152 eta 161 art.; BJLO 271 art.).
- *Ediktuen bidez*: Pertsonaren helbidea ezagutzeko ikerketa guztiak burutu ondoren aurkitzen ez bada, edo komunikazioa egin ezin zaionean. Kasu horietan kopia edo zedula organoaren iragarki-taulan jarriko da.
- *Auzi-iheslariari notifikazioa*: Pertsonalki zitatu ondoren auzi-ihesean dauden alderdientzako (PZL 497 art.).

Notifikazioa txarto eginez gero → Defentsa-gabezia, baldin eta benetako ezagutze eza badago.

2. BESTE ORGANO BATZUEKIN

- *Laguntza judiziala (auxilio judicial)*: (BJLO 273 art.: Kooperatzeko beharra) Jurisdikzio-organok berak egintza prozesala egin ezin badu (beste organo batek eskumena izateagatik, edo bere mugapetik kanpo jardun behar

duelako), beste jurisdikzio-organo batzuei laguntza eskatuko die (BJLO 274.1 art.). Bere barruti judizialaren barruan baina bere egoitzako herritik kanpo egintza egin behar duenean ere posiblea da laguntza judiziala, baldin eta arrazoi oinarrituak badaude (PZL 169 art.). Eskaera bat egiten zaio zuzenean organoari **exhorto** judizialaren bidez (PZL 172 eta 173 art.). Estatu barrukoa edo nazioartekoa izan daiteke (BJLO 276-278 art.).

- *Justiziarekin kooperazioa (auxilio a la justicia)*: Jurisdikzio-organoek jurisdikzionalak ez diren beste organo publikoen kooperazioa izan dezakete (EK 118 eta BJLO 17 art.).